**XVIII. mendearen hasieratik dago dokumentatuta, eta 1704ko parrokiako kontuetan agertzen da jada.**
**1771ko ekainaren 16an egin zen Untzako Andra Mari Eliza "Berria" eraikitzeko lanak esleitzeko enkantea, ermitaren atarian.**
**Barnealdean, San Bartolomeren tailu barroko bat ikus daiteke erretaularen buru, bai eta Magdalena penitentearen beste irudi bat ere, Basoalduko Magdalena ermita desagertukoa.**

*Balizko arkeologia gune.*



# Ermita de San Bartolome BASELIZA

Está documentada desde comienzos del siglo XVIII, figurando ya en las cuentas parroquiales de 1704.
En el pórtico de la ermita se celebró el 16 de junio de 1771 la subasta de adjudicación de las obras de construcción de la Iglesia de Ntra. Sra. de Untza " La Nueva".
En su interior se puede observar una talla barroca del San Bartolome presidiendo el retablo, así como otra imagen barroca de La Magdalena penitente de la desaparecida ermita de La Magdalena en Basoaldu.

*Zona de presunción arqueológica.*

okon-do ibili

# Río Itzalde IBAIA



Itzalde ibaiak zeharkatzen du Okondo harana hegotik iparrera, Sodupen Herrerías ibaiarekin elkartu eta azkenean, Kadagua ibaian isuri arte. Itzalde ibaiaren ibaiadar nagusiak ezkerraldetik Urkixu, Mastondo, Agirrealdai eta Olako dira; eskuinaldetik, berriz, Erroiatx, Andiobe eta Ugalde erreketako urak jasotzen ditu.
Ibai eta erreka horiek eragin handia izan zuten Okondoko bizitzan eta ekonomian; izan ere, ur horiek mugitzen zituzten burdinola eta errota askoren gurpilak, hala nola Olabeaga, Txabarri edo Maiorgakoak.

El río Itzalde atraviesa el valle de Okondo de sur a norte hasta su confluencia con el río Herrerías en Sodupe y vertiendo finalmente al río Kadagua. Los principales afluentes del río Itzalde son por su margen izquierda los arroyos Urkixu, Mastondo, Agirrealdai y Olako, mientras que en su margen derecha recibe las aguas de los arroyos Erroiatx, Andiobe y Ugalde.
Estos ríos y arroyos tuvieron gran influencia en la vida y economía de Okondo, ya que sus aguas movían las ruedas de gran cantidad de ferrerías y molinos, como los de Olabeaga, Txabarri o Maiorga.

okon-do ibili



## Ermita de San Sebastian BASELIZA

1704az geroztik agertzen da elizako liburuetan. Tradizioaren arabera, sarrerako kanpaiaren soinuak ekaitzak uxatzen ditu. Otaola auzoan Ospin-Urkijotarrek eguzki-dorrea eta arma-dorrea izan zituzten; familia horrek debozio-loturak izan zituen dorretik hurbil zuten ermitarekin. San Sebastian egunaren (urtarrilak 20) hurrengo larunbatean, zaindariaren ohorezko erromeria ospatzen da alboko zelaian.

*Balizko arkeologia gune.*

Se encuentra documentada en los libros parroquiales a partir de 1704. Según la tradición el sonido de la campana de la entrada ahuyenta las tormentas. En el barrio de Otaola tuvieron su torre solar y armera los Ospin de Urkijo, quienes mantuvieron vínculos de devoción con la ermita próxima a su torre. El sábado siguiente al día de San Sebastian (20 de enero) se celebra en la campa aledaña la romería en honor al patrón.

*Zona de presunción arqueológica.*

okondo ibili

Haritz (*Quercus robur*) hau garai batean ugari ziren zuhaitz motzen adibideetako bat da; zuhaitz horiei adarrak mozten zizkieten ikatza eta zurgintzarako elementuak eskuratzeko, besteak beste.
Haritz horren inguruan zegoen Untzako dorrea, Aiarako jauntxoen jabetzakoa; dorre hori espetxe bihurtu zen XVI. mendean.
Dorretik hurbil zegoen Untzako Andra Mariren eliza "Zaharra", egungoa eraiki arte; 1778an erori egin zen, ez zelako erabiltzen.

*Balizko arkeologia gune.*



## Roble de Untza

# Untzako Haritza

Este roble (*Quercus robur*) es un ejemplo de los, en otro tiempo, abundantes árboles trasmochos, a los que cortaban las ramas para obtener carbón, elementos de carpintería, etc.
En el entorno de este roble se debió levantar la Torre de Untza, propiedad de los señores de Ayala que en el siglo XVI pasó a ser cárcel.
Cerca de la torre se localizaba la Iglesia de Ntra. Sra de Untza "La Vieja", hasta la construcción de la actual, y su caída en desuso en 1778.

*Zona de presunción arqueológica.*

okon-do ibili

Untzako Andra Mari eliza "Zaharraren" ordez eraiki zen 1772 eta 1777 artean tenplu barrokoa, Okondon jaio eta Mexikon bizi zen Juan de Ibarrola y Castañiza jaunaren dohaintzari esker. Tenplua eraikitzeko, Aiarako kondeek (eliza horretako zaindariak) titulu bera izatea eskatu zuten eta aldare nagusian Untzako ama birjinaren irudia izatea nagusi. Barnean, Aiaratarren arma-ezkutua ikus daiteke, baita Untzako ama birjina hartzen duen multzo neoklasiko bat eta eliza zaharreko bi erretaula barroko ere.

Templo barroco construído en sustitución de la Iglesia de Ntra. Sra. de Unzá "La Vieja" entre 1772 y 1777, gracias a la donación de Juan de Ibarrola y Castañiza, nacido en Okondo y residente en México.
Para su edificación los condes de Ayala, patrones de dicha iglesia, impusieron que llevara el mismo título y presidiese su altar mayor la imagen de la virgen de Unzá. En su interior, el escudo de armas de los Ayala, así como un conjunto neoclásico que alberga la Virgen de Unzá y dos retablos barrocos de la antigua iglesia.



# Iglesia de Nuestra Señora de Unzá

# Untza Andra Mari

## ELIZA

okondo ibili

Basoaldun zegoen ermita hori 1706az geroztik dago dokumentatuta, Untzako Andra Mari parrokiaren kontura teilaberritzen zenetik.
Etxetxo bat zuen alboan; XVIII. mende hasieran errentan ematen zen.
1791ko pastoraltzaren bisitan ez zen ermita hori agertzen, eta galdu egin zen haren arrastoa data horretatik aurrera.
Magdalenako tailua San Bartolome ermitan jarri zen, eta bertan dago gaur egun.



# Ermita de *La Magdalena* BASELIZA

Esta ermita que estaba situada en Basoaldu, se documenta desde 1706, cuando se retejaba por cuenta de la parroquia de Ntra. Sra. de Unzá.
Tenía una pequeña casa aneja que se arrendaba al comienzo del siglo XVIII.
En la visita pastoral de 1791 no figuraba esta ermita perdiéndose su rastro a partir de esa fecha.
La talla de La Magdalena se recogió en la ermita de San Bartolome donde se puede observar en la actualidad.

okondo ibili

Eraikin honetan hainbat eraikuntza-etapa antzematen dira. Nolanahi ere, baditu XV. mendekoa dela uste izateko elementu identifikagarriak. Landa-harlangaitzezko eraikin tinkoa da, eta bere balio nagusiak fatxadako zuloen berezitasuna eta harlandu oneko piezak dira. Zenbaitek uste dute jauregi hau eraikitzeko materiala Aiarako jaunen jabetzakoa zen Untzagako garai bateko dorre eta espetxetik atera zela, hura eraitsi ostean; hala ere, ez dago hori ziurtatzeko inolako daturik.

*Balizko arkeologia gune.*

Este caserío consta de diferentes etapas constructivas si bien guarda elementos bien identificables que lo retrotraen al siglo XV. Se trata de una sólida edificación de manpostería rural y que tiene sus principales valores en la singularidad de los huecos de fachada, con piezas de buena sillería.
Hay quien opina —sin que exista nada que lo certifique— que para construir este palacio pudo utilizarse material proveniente de la antigua torre y cárcel de Unzá, propiedad de los señores de Ayala, tras su demolición.

*Zona de presunción arqueológica.*



# Palacio La Cuadra JAUREGIA

okon-do ibili